



Donostian, 2015eko urriaren 23an

## UDALBATZAKO IDAZKARI NAGUSIARI

### KONTROL MOZIOA, HIRIKO DORRE ERLOJUEN MANTENTZE, KONTSERBAZIO ETA AZTERKETA LANEN KONTRATUA ALDATZEA DELA ETA

Irabazi Donostia udal taldearen bozeramaile Amaia Martinek, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta KONTROL MOZIO hau dakarkio Udalbatzari, GUNE PUBLIKOEN BATZORDEAN (OBRAK ETA HIRI ZERBITZUAK) hiriko dorre erlojuen mantentze, kontserbazio eta azterketa lanen kontratuaz egindako interpelazioaren ondorioz.

### JUSTIFIKAZIOA

GUNE PUBLIKOEN BATZORDEAN (OBRAK ETA HIRI ZERBITZUAK) interpelazio bat egin genuen hiriko dorre erlojuen mantentze, kontserbazio eta azterketa lanen kontratuaz, kontratu horretan badirelako 11 erloju Udalaren erakinetan ez baina hiriko zenbait elizatan direnak.

Bilera hartan, erantzun ziguten erloju horiek herritar guztiei ematen diela informazioa, eta hori zela mantentze lanak ordaintzeko arrazoia. Hala ere, hirian badira erloju digital batzuk ere, partikularrenak direnak, eta Udalak ez du haien mantentze lanarenik ordaintzen, ez direlako Udalarenak.

Hori dela eta, hauxe da Irabazi Donostia udal taldeak aurkeztutako kontrol mozioa:



## KONTROL MOZIOA

1. Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio 2017an ez luzatzeko hiriko dorre erlojuen mantentze, kontserbazio eta azterketa lanen kontraturik.
2. Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio beste oinarri batzuk egiteko hiriko dorre erlojuen mantentze, kontserbazio eta azterketa lanen kontratua arautzeko, eta Udalaren erakinetan diren erlojuei kasu egitea besterik ez sartzeko kontratu horretan.

Izpta.: Amaia Martin Garin,  
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea.